

## XEDAPEN OROKORRAK

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

## 3912

*173/2011 DEKRETUA, uztailaren 26koa, Gobernu Irekia / Open Government arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko beka arautzen dituena.*

Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiak lagundu egiten dio Lehendakariari Eusko Jaurlaritzaren informazio eta komunikazio politika ezartzen, diseinatzen eta zuzentzen. Horrezaz gain, honako eginkizun hauek ere baditu: gardentasun informatiboa bultzatzea eta herritarrei Administrazioan parte hartzen eta lankidetzan aritzen laguntzea; eta irizpideak eta baliabideak ezartzea, Administrazio Orokorraren sailen eta erakunde autonomoen prentsa zerbitzuak nahiz erakunde arteko ekintzen zabalkundea koordinatzeko.

Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiaren ataletako bat Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritza da. Besteak beste, honako eginkizun hauek dagozkie zuzendaritza horri: Jaurlaritzaren multimedia-edukiak prestatu eta ematea, Jaurlaritzaren ekintzen gardentasuna erraztea Interneten, sareko entzute aktiboa burutzea, komunikazioko multimediatik eta ikus-entzunezko baliabide berriak ikertu eta sustatzea Interneten, Jaurlaritzarekin sarean parte hartu eta komunikatzeko.

Bestalde, gero eta ugariagoak dira Informazio Zientzietako zenbait lizentziaturetan Ziberkazetaritza eta Kazetaritza Digitalari buruzko espezialitateak, eta gero eta ugariagoak dira, halaber, gai horri buruzko gradu ondoak, berariazko ikastaroak, jardunaldiak eta hitzaldiak unibertsitate eta ikastetxe guztietan, publikoetan zein pribatuetan. Hori kontuan hartuta, Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzatik pentsatu da beketarako dei egin behar dela, ikasle talde horrek gai horietan parte hartzeko eta ikertzeko aukera izan dezan eta barrutik errepara diezaien lan jardunbide eta era horiei alor horretan orain arte berariazko zuzendaritza duen gobernu bakarrean. Halaber, uste da laguntza handia eta urrats esanguratsua dela komunikabide berrientzat, administrazioentzat, unibertsitateentzat, ikastetxeentzat eta ikasleentzat.

Alor horietan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko arautzen dira beka hauek eta beka horietara biltzeko deia aldian-aldian egiteko asmoa dago.

Horren guztiaren ondorioz, Jaurlaritzaren Lehendakariaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen urtarrilaren 12ko 1/2010 Dekretuan ezarritakoari jarraiki, Lehendakariak proposatu eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko uztailaren 26an egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

## XEDATU DUT:

I. KAPITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

## 1. artikulua.– Xedea.

1.– Dekretu honek Gobernu Irekia / Open Government arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak arautzen ditu, batez ere, Ziberkazetaritza, Kazetaritza Digitala eta Herritarren Parte Hartzea bultzatzeko, eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien garapena sustatzeko software askea erabiliz Eusko Jaurlaritzaren Irekia proiektuaren barruan.

2.– Beka horiek honako lau modalitate hauetan sailkatzen dira:

- Gobernu Irekia, Gardentasuna eta Herritarren Interneteko Parte Hartzearen arloko bekak.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ikerketa eta garapenaren arloko bekak.
- Kazetaritza Digitalaren arloko bekak.
- Ikus-entzunezko Ekoizpenaren arloko bekak.

3.– Beka horien onuradunak Eusko Jaurlaritzaren bulegoetan espezializatu eta prestatuko dira. Hala ere, eta prestakuntzan laguntzeko, bekadunek Irekia-ko lantaldeetako langileei lagunduko diete langile horiek egin beharreko joan etorrietan. Langile horiek Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzari atxikita daude.

4.– Aukeratutako hautagaiei bekak esleitzea dela eta, laguntza horiek itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren konturako diru-laguntzak arautzeko indarreko araudiari loturik egongo dira.

5.– Dekretu honetan araututako bekak esleitzeko lehiaketa-prozedura erabiliko da eta dekretu honek ezarritako balorazio-irizpideei eta hautaketa-prozesuei jarraiki emango zaizkie beka horiek prozesuok gainditzen dituzten hautagaiei, gehienez urteroko deialdian deitutako beka kopurua bete arte, ekitaldi bakoitzean horretarako aurrekontu baliabiderik badago.

## 2. artikulua.– Deialdia eta iraupena.

1.– Beken deialdia aldi-aldi egingo da Lehendakaritzako idazkari nagusiaren ebazpen baten bidez; ebazpen horretan honako hauek ezarriko dira: deialdiaren helburua; beka kopurua; beken tokia, diru-kopurua eta ordainketa; baloraziorako azpi-irizpideak, horien haztapena eta, beharrezko bada, egin beharreko probak, baita eskaerak aurkezteko tokia eta epea eta eskabide-eredua ere. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)-en ere argitaratuko da.

2.– Bekek hogeita lau hilabete iraungo dute.

## 3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Honako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek eskura ditzakete bekak:

a) Administrazio egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea bekak deitzen diren urteko urtarrilaren 1a baino lehen.

b) Gehienez 40 urte izatea deialdiaren ebazpena argitaratzen den egunean.

c) Dekretu honen II. kapituluan beka mota bakoitzerako ezarritako berariazko baldintzak betetzea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura horrelako bekarik ez antzekorik ez eskuratu izana aurretik.

e) Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik izatea ere. Baldintza hori zehapen aldirako baino ez da ezarriko.

2.– Bekak emateak eta hartzeak ez du kontratu, lan edo estatutu bidezko inongo harremanik ezarriko bekadunaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean.

## II. KAPITULUA

### BEKA MOTA BAKOITZAREN BERARIAZKO EZAUGARRIAK

4. artikulua.– Gobernu Irekia, Gardentasuna eta Herritarren Interneteko Parte Hartzearen arloko beka.

1.– Gobernu Irekia, Gardentasuna eta Herritarren Interneteko Parte Hartzearen arloko bekek honako helburuak dituzte:

– Herritarrek egindako iruzkinak aztertzea, horiek tipologiaren eta informazio fluxuen arabera sailkatzea, iturriari jarraiki. Hainbat esparrutako parte hartze prozesuak ezartzea, hala herritarrei begira zein administrazio publikoaren barruan edota beste erakundeekin.

– Gizarte sareak eta horiek Gobernu Irekian nola aplikatu aztertzea, erabilpenen arabera eta herritar edota eduki multzoen arabera.

– Sarea behatzea, iritzietan liderrak direnak identifikatzea, horien motibazioak eta horien idazkiek sarean dute eragina ezagutzea, Irekia proiektuan dituzten erabilpenak ere ezagutzea.

– Gobernu Irekiaren doktrina beste herrialde batzuetan eta beste administrazio publikoetan nola ezarri den aztertzea. Batez ere, herritarren parte hartzearekin lotutakoak nola ezarri diren. Horiek Eusko Jaurlaritzak ezarri edo erabili ditzakeen ebaluatzea.

– Herritarrak nahiz beste administrazio publikoak eta bestelako erakundeak tartean sartzeko formulak aztertzen eta horietan parte hartzen internautek duten inplikazioa ebaluatzea.

– Herritarren parte hartzea sustatzeko lankidetzak tresnak ikertzea.

– Zenbait web gune (Irekia eta gizarte sareak) eta horietako jokabidearen jarraibideak aztertzea.

2.– Beka horiek eskuratu nahi dituztenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, dekretu honen 3. artikuluan ezarritakoez gain:

– Titulazioa: Lizentzia edo gradua izatea Kazetaritzan, Publizitate eta Harreman Publikoetan, Ikus-entzunezko Komunikazioan, Soziologian, Gizarte eta Kultura Antropologian, Politika edota Administrazio Zientzietan, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, Enpresa Zientzietan, Merkatu Ikerketa eta Tekniketan.

– Hizkuntzak ezagutzea: Euskara B1.

5. artikulua.– Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ikerketa eta garapenaren arloko beka.

1.– Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ikerketaren arloko beka honako helburuak dituzte:

- Erabiltzen den softwarea etengabe hobetzea eta prozesuak automatizatzea aztertzea.
- Funtzio eta garapen berriak garatzea, ezartzea, balioztatzea eta abiaraztea, proiektuaren arduradunek gainbegiratuta.
- Web guneak aztertzea eta adierazleak neurtzea: Interneten nabigatzen dutenen jokabidearen jarraibideak aztertzea, edukiak aldatzeak horiengan eragindako korrelazioak eta inplikazioak, eta abar.
- Software askea (Europar Batasuneko Lizentzia Publikoaren esparruan) eta Open Data erabiltzea eta horiek eraginkor sustatzea proiektuan.
- Interneteko ikus-entzunezko komunikazioarekin lotutako aplikazio, teknologia eta erabilpen berrien teknologia behatzea, horiek guztiak ikertzea eta esperimendatzea: gizarte sareetan bestelako zerbitzuekiko pasabideak edota elkarri lotzeko APIa, plugins-ak, widgets-ak, bideo edizioa (IP gaineko bideo streaming-a barne), eta abar.
- Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Irekian sartzeko izan daitezkeen produktuak eta zerbitzuak ebaluatzea: bideragarritasuna, alde interesgarriak, abantailak, zailtasunak, kostuak eta proposamenak lantzea.

2.– Beka horiek eskuratu nahi dituztenek honako titulazio hauetakoren bat izan beharko dute, dekretu honen 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzeaz gain:

- Lizentzia izatea Fisikan, Matematikan, Informatikan, Telekomunikazioan, Industria Antolakuntzan, Ekonomian, Soziologian edota Estatistika Zientzia eta Tekniketan.
- Gradua edo masterra izatea Fisika, Matematika, Informatika, Telekomunikazioa, Industria Antolakuntza, Ekonomia, Soziologia edota Estatistika Zientzia eta Teknika arloetako titulazio batean.

6. artikulua.– Kazetaritza Digitalaren arloko beka.

1.– Kazetaritza Digitalaren arloko beka honako helburuak izango dituzte:

- Barneko koordinazio maila ebaluatzea eta irtenbideak identifikatzea.
- Adierazleak aztertzea eta sailak inplikatzea gardentasuna erabiltzerakoan.
- Administrazio publikoaren materiala identifikatzea eta gaien arabera aukeratzea, Irekia herritarrek Interneten parte hartzeko atarira eramateko.
- Idazkiak eta multimedia edukiak prestatzea, horiek guztiak Irekiara -herritarrek Interneten parte hartzeko atarira- eramateko: landa-lana burutzea, ikertzea, idaztea, ahoskatzea, editatze digitala burutzea eta sarearen bitartez banatzea.

2.– Beka horiek eskuratu nahi dituztenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, dekretu honen 3. artikuluan ezarritakoez gain:

- Titulazioa: Lizentzia edo gradua izatea Informazioaren Zientzietan (kazetaritza).

– Hizkuntzak ezagutzea: Euskara B1.

7. artikulua.– Ikus-entzunezko Ekoizpenaren arloko bekak

1.– Ikus-entzunezko Ekoizpenaren arloko bekek honako helburu hauek izango dituzte:

– Argazkilaritzaren erabilpena ezartzea erakunde publiko batean: argazki ekoizpena eta argazkilaritzan erabiltzeko ekoizpen ondoko digitala.

– Audioa eta bideoa grabatzeko ekipoak ezagutzea eta erabiltzea eta horien erabilpenak aztertzea eta ikertzea: Interneten multimedia edukiak sortzeko edizio programak eta osagarriko aplikazioak ikastea eta 2.0 agertokiko joerak eta aukerak aztertzea (aurre ekoizpena, ekoizpena eta ekoizpen ondokoa).

2.– Beka horiek eskuratu nahi dituztenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, dekretu honen 3. artikuluan ezarritakoez gain:

– Gutxienerako titulazioa: Lanbide Heziketa ikus-entzunezkoei edota multimediarri buruz.

### III. KAPITULUA HAUTAKETA PROZEDURAK

8. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzara zuzenduko dira Lehendakartzan (Nafarroa kalea, 2; 01007 Vitoria-Gasteiz) du egoitza zuzendaritza horrek eta Eusko Jaurlaritzaren Herritarrei Laguntzeko bulegoetan edota Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean adierazitako tokietan aurkeztuko dira, deialdiaren ebazpenean ezarritako epean eta eran, eskabideak zein beka motatara aurkezten diren adieraziz.

Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez ere aurkez daitezke, dekretu honen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Deitutako beka mota baten baino gehiagotan interesa duten pertsonen interesa duten beka bakoitzeko eskabide bat aurkeztu beharko dute.

3.– Eskabideari honako agiriak erantsi beharko zaizkio:

a) NANaren fotokopia.

b) Administrazio egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea ziurtatzeko agiria.

c) Curriculum vitae-a, ikasketa-espeditentia barne hartuaz.

d) Lortu nahi den bekarako garrantzi berezia duten ikasketa eta esperientzia praktikoa ziurtatzeko agiriak edo horien kopia konpultsatua. Egiaztatutako ikasketek izaera ofiziala eta balio akademikoa izan beharko dute, betiere.

e) Beka eskatu duenak egindako lanen eta argitalpenen kopia.

f) Karnet-neurriko argazki bat.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura horrelako bekarik ez antzekorik aurretik ez duela eskuratu egiaztatzen duen zinpeko aitortpena.

h) Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik ez duela eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere ez duela jasotzen duen zinpeko adierazpena.

4.– Deialdian horrela aurreikusten denean, eskabideek honako aukera hau jasoko dute: bekaren onuraduna izateko baldintzak egiaztatzen duen dokumentazioa eskura dezake organo kudeatzaileak, beka eskatzen duenak berariaz horretarako baimena eman ondoren.

5.– Titulazioak egiaztatzeko, tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua eskuratzeko ordaindu beharrekoa ordaindu izanaren agiriaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

6.– Atzerrian edota publikoak ez diren espainiar zentroetan lortutako tituluak homologatuta egon beharko dute eskabidea aurkezteko unean.

7.– Ez da inolako ikastarorik edo esperientziarik baloratuko, agiri bitartez justifikatuta ez badago eskabidea aurkezteko unean.

9. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Eskabideak eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak ezarritako betekizun guztiak betetzen ez badituzte, edo osorik aurkeztzen ez badira, eskatzaileari eskatuko zaio hamar egun baliodunetan akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko, eta azalduko zaio eskatutakoa egin ezean eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela horri buruzko ebazpena eman ondoren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1 eta artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

10. artikulua.– Hautaketa fasea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta 9. artikuluan aurreikusitako izapidea gauzatu ondoren, hautagaiak aukeratzeko prozesuari ekingo zaio.

2.– Beka mota bakoitzerako egin behar diren probak urteroko deialdian ezarriko dira eta berdinak izango dira beka mota bakoitzera aurkeztutako hautagai guztientzat.

3.– Lehendakaritzako iragarki oholean eta Irekian argitaratuko dira probak egiteko deia eta beka mota bakoitzerako dekretu honek ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen zerrenda.

4.– Zerrenda horretan agertzen ez direnek hamar egun izango dituzte erreklamazioak aurkezteko. Epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betikotzat joko da zerrenda eta zerrendan agertzen ez diren eskatzaileak hautaketa prozesutik kanpo geratu direla ulertuko da.

5.– Beka mota bakoitzeko hautaketa batzordeak elkarrizketa egingo die hautagaiei, beka mota bakoitzerako eskatutako profilerak egokitzen diren aztertzeko. Elkarrizketak egiteko deia Lehendakaritzako iragarki oholean eta Irekian ere argitaratuko da.

6.– Beka mota bakoitzerako eratutako hautaketa batzordeak aurkeztu diren eskabideen hurrenkera ezarriko du, dekretu honen 11. artikuluan ezarritako balorazio irizpideei jarraituta.

11. artikulua.– Balorazio-irizpideak eta beken esleipena.

1.– Honako hauek dira Gobernu Irekia, Gardentasuna eta Herritarren Parte-hartzearen arloko beketarako balorazio-irizpideak:

– Behar adina ezagutzea gizarte sareei, parte hartzeko prozesuei eta lankidetzan lanerako lanabesei aplikatutako teknologia berriak (30 puntu gehienez).

– Ingurune digitalen kudeaketa ezagutzea (15 puntu gehienez).

– Pertsonaren ibilbide akademikoa eta profil akademikoa bekaren helburuari egokitzea (25 puntu gehienez).

– Ibilbide profesionala eta talde-lanerako gaitasuna (20 puntu gehienez).

– Euskara ezagutzea (6 puntu gehienez).

B2: puntu 1.

C1: 3 puntu.

C2: 6 puntu.

– Ingelesa ezagutzea (4 puntu gehienez).

B1-B2: puntu 1.

C1: 3 puntu.

C2: 4 puntu.

2.– Honako hauek dira Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ikerketa eta garapenaren arloko beketarako balorazio-irizpideak:

– Programazio mintzaireri eta datu-baseei buruzko ezagutza izatea (50 puntu gehienez).

– Lankidetzan lanerako eta gizarte sareetarako lanabesei eta zerbitzuei buruzko ezagutza izatea, baita Interneten argitaratzeari buruzkoa ere: estandarrak, mintzairak, elkarri lotzeko pasabideak (35 puntu gehienez).

– Ikus-entzunezko / multimedia edizioari buruzko ezagutza izatea (10 puntu gehienez).

– Ingelesa ezagutzea (2,5 puntu gehienez).

B1-B2: 0,5 puntu

C1: 1,5 puntu.

C2: 2,5 puntu.

– Euskara ezagutzea (2,5 puntu gehienez).

B1-B2: puntu 1.

C1-C2: 2,5 puntu.

3.– Honako hauek dira Kazetaria Digitalaren arloko beketarako balorazio-irizpideak:

– Kazetaritzari buruzko eta Interneti aplikatutako ikus-entzunezkoen grabazioari, edizioari eta ekoizpen ondokoari buruzko ezagutza izatea (75 puntu gehienez).

– Teknologia berriei, Interneteko plataformetako gizarte sareei eta lankidetzan lanerako eta parte hartzeko tresnei buruzko ezagutza izatea (20 puntu gehienez).

– Euskara ezagutzea (5 puntu gehienez).

B2: puntu 1.

C1: 3 puntu.

C2: 5 puntu.

4.– Honako hauek dira Ikus-entzunezkoen Ekoizpenaren arloko beketarako balorazio-irizpideak:

– Argazkilaritza, ekoizpen eta ekoizpen ondoko digitalari buruzko ezagutza akademiko edota profesionala izatea (30 puntu gehienez).

– Audioa eta bideoaren grabazio eta edizio digitalari buruzko ezagutza akademiko edota profesionala izatea (30 puntu gehienez).

– Behar adina ezagutzea teknologia berriak eta ikus-entzunezkoen aurrekoizpenerako, ekoizpenerako eta ekoizpen ondokorako formatuak eta joerak: telebistarako, Internet telefonia mugikorrerako, eta abar (30 puntu gehienez).

– Ikus-entzunezkoetan lan akademiko edota profesionalak egiaztatzea (5 puntu gehienez).

– Ingelesa ezagutzea (2,5 puntu gehienez).

B1-B2: 0,5 puntu.

C1: 1,5 puntu.

C2: 2,5 puntu.

– Euskara ezagutzea (2,5 puntu gehienez).

B1-B2: 0,5 puntu.

C1: 1,5 puntu.

C2: 2,5 puntu.

12. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

1.– Hautaketa batzorde batek baloratuko ditu merituak; honako pertsona hauek osatuko dute batzorde hori:

a) Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzaren pertsona titularrak; bera izango da batzordeburua.

b) Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako zuzendariak izendatutako bi pertsonak; pertsonak aldatzeko aukera dago deitutako beken espezialitatearen arabera.

c) Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiari atxikitako goi teknikari batek; bera izango da idazkaria, eta hitza bai baina botorik ez du izango.

2.– Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 eta 23. artikulua betez, Hautaketa Batzordean behar besteko gaitasuna, trebetasuna eta prestakuntza duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua dela bermatuko da.

3.– Hautaketa Batzordeak, hala dagokio, teknikari adituen aholkuak jaso ditzake; teknikari horiek hitza bai baina botorik ez dute izango.

4.– Batzordeak edozein erabaki hartzeko, batzordekide gehienek eman beharko dute aldeko botoa. Berdinketa egonez gero, batzordeburuak izango du kalitateko botoa.

13. artikulua.– Esleipena.

1.– Hautaketa Batzordeak, egindako balorazioa kontuan hartuta, Lehendakaritzako idazkari nagusiari proposatuko dio beka modalitate bakoitzean aukeraketa fasean 50 puntuko gutxienekoa (100etik) lortu eta elkarrizketa egin duten hautagaien artean gehienezko puntuazioa lortu dutenei esleitzea bekak. Proposamen hori arrazoitu egin beharko da.



2.– Batzordeak, halaber, beka modalitate bakoitzerako ordezkoen zerrenda bat proposatuko du, ukorik edo bestelako gertaerarik izaten den kasuetarako. Ordezko horiek dagozkien balorazio irizpideen araberrako hurrenkeran ordenatuko dira, beti ere, hautaketa fasean 50 puntuko gutxienera lortu badute.

3.– Bekak esleitu gabe utzi ahal dira, hautagairik ez dagoelako edota deialdira aurkeztu den inork ez duelako lortu eskatutako gutxienera puntuazioa.

4.– Pertsona batek deialdi berean modalitate baterako baino gehiagorako eskabideak aurkeztu eta beka bat baino gehiago esleitzea merezi duen puntuazioa lortzen badu, beka horien arteko bat aukeratu ahal izango du eta, ezinbestean, uko egingo die gainontzekoei.

#### 14. artikulua.– Ebazpena.

1.– Beka modalitate bakoitzerako izendatutako hautaketa batzordeak egindako proposamena ikusi ondoren, Lehendakaritzako idazkari nagusiak eman beharreko ebazpena emango du eta beken onuradunak eta, hala badagokie, ordezkoak izendatuko ditu edo esleitu gabe utziko ditu hautagai egokirik ez dutenak. Ebazpena arrazoitu egin beharko da eta ebazpen horrek administrazio-bidea amaituko du.

2.– Esleipen ebazpena eskatzaileei banan-banan jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)-en argitaratuko da, guztiek horren berri izan dezaten.

3.– Ebazpen horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke organo berean hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira kontaktzen.

4.– Ebazpen hori gehienez ere 6 hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da, urteko deialdia argitaratzen den egunean kontaktzen hasita.

5.– Epe hori igaro eta interesatuei inolako ebazpenik jakinarazi ez bazaie, eskabideak ezetsi direla ulertu beharko dute.

#### 15. artikulua.– Uko egitea.

1.– Beka esleitu ondoren onuradunak uko egiten badio bekari, uko egindako aldiari dagokion diru-kopurua jasotzeko eskubidea ere galduko du. Beraz, uko egiten duenak diru-kopuru horretatik aurrez jaso duen zatia itzuli beharko du.

2.– Uko egitea beka baliatzen hasten deneko lehenengo hiru hilabeteetan gauzatzen bada, beste bekadun bat izendatuko du ordezeko gisa izendatutako artetik, betiere ordezkapen-hurrenkeraren arabera eta beka baliatzeko geratzen den aldirako.

3.– Uko egitea hiru hilabeteak igaro ondoren gauzatzen bada, Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak baloratu beharko du, beka baliatzeko geratzen den aldia kontuan hartuta, komeni den beste bekadun bat izendatzea ordezkoen artean, betiere ordezkapen-hurrenkera errespetatuta.

#### IV KAPITULUA BEKEN PROGRAMA BURUTZEA

16. artikulua.– Bekadunen betebeharrak.

Honako hauek dira bekadunen betebeharrak:

a) Emandako beka onartzea. Ildo horretan, pertsona onuradunak bekari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio beka eman zaiolako jakinarazpena jasotzen den egunaren ondoko hamabost egunetan, beka onartu dela ulertuko da.

b) Familiaren egoerari buruzko adierazpen bat aurkeztea, onuradunaren egoera fiskala argitu eta, hala badagokio, egin beharreko atxikipen fiskalak egiteko.

c) Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiaren ikerketa proiektuetan parte hartzea.

d) Ikerketaren helburuarekin zerikusi zuzena duten mintzaldi, ikastaro, jardunaldi, mintegi eta ekitaldietan parte hartzea, hala badagokio, Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiak proposatuta. Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiaren kontura joango dira bekadunaren inskripzio, bidaia, mantenu eta ostatu gastuak. Horiek guztiak bukatu ondoren, ekitaldi horietan parte hartu duten bekadunek txosten bat egingo dute aztertutako gaiez eta eskuratutako ezaupideez.

e) Bekaren helburu zehatza betetzeko erabiltzea beka.

f) Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak beka bakoitzari ezarri dizkion aldizkako jardueren egutegia betetzea –alde biek izango dute egutegi hori aldatzeko aukera– eta hiru hilez behin txosten bat aurkeztea aztertutako gaiez, sortutako arazoez, eskainitako irtenbideez eta, oro har, bekari buruzko alor guztiez.

g) Dekretu honen kontura emandako bekei buruz Ekonomi Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak haien eginkizunak betetzeko eska ditzaketen argibide guztiak ematea.

h) Bekadunek zatikako txostenak egin beharko dituzte zati horiei dagozkien ordainketak jaso aurretik eta, bekaldia bukatu ondoren amaierako txostena egin beharko dute. Amaiera txostenean aztertutako gai guztiei buruz, gai horiek planteatzen dituzten arazoei eta egon daitezkeen konponbideei buruz, eta, orokorrean, gaiarekin zerikusia eta interesa daukaten arloei buruz jardungo dira.

17. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

1.– Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzaren egitekoa izango da dekretu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzea. Horretarako, zuzendaritza horrek gainbegiratuko ditu bekadunaren jarduerak, eta hileroko ebaluazio bat eta hiru hileroko ebaluazio-txosten bat egingo ditu.

2.– Ebaluazioaren emaitza negatiboa bada, baldintzak ez direla bete ulertuko da, dekretu honen 19. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

18. artikulua.– Beken diru-zenbatekoa eta ordaintzeko era.

1.– Beka bakoitzak 34.000 euroko diru-zenbatekoa izango ditu. Diru-zenbateko hori hurrengo deialdi ebazpenetan eguneratuko da, kontsumo-prezioen indizearen gorabeheren arabera. Diru-zenbateko hori onuradunen mantenuak eta ostatuak eragindako ohiko gastuak ordaintzeko izango da.

2.– Bekak ordaintzeko era deialdi ebazpenean zehaztuko da, eta horiek ordaintzeko aurreratutako zatikako ordainketak egiteko aukera aurreikusi daiteke, betiere ordainketa horiek diru-zenbatekoaren ehuneko hogeita hamarrekoak (% 30) baino gehiagokoak ez badira.

19. artikulua.– Baldintzak ez betetzea.

1.– Beka esleitzea ekarri duten baldintzetakoren bat ez dela bete egiaztatzen bada, jasotako dirua eta horrek sortutako legezko interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, betiere, Euskadiko Ogasun Orokorraren Printzipio Antolatzaileei buruzko Legearen 53. artikuluan –lege horren testu bategina onartu zen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bitartez– eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2.– Baldintzaren bat betetzen bada, Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak beka kentzea proposatuko dio Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusiari. Beka kendu behar bazaio, horretarako ebazpena emango du Lehendakartzaren idazkari nagusiak, interesdunari entzun ondoren. Horrelakoetan, beka kendu zaion pertsonak eskubidea izango du ordura arte igarotako beka aldiari dagokion diru-kopurua jasotzeko.

20. artikulua.– Bateriaezintasuna.

Beka baliatzea bateraezina da beste beka edo laguntza bat jasotzearekin eta ordaindutako edozein lan egitearekin, ikerketa lanak, irakaskuntza lanak edo norbere konturako lanak burutzearekin ez bada. Lan horiek burutzeko, Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzaren titularrak horretarako baimena eman beharko du aurrez.

21. artikulua.– Ziurtagiriak.

Bekaren indarraldia amaitutakoan, horren egiaztagiria emango die Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzaren titularrak bekadunei. Bestalde, burutu dituzten jardueren ziurtagiri zehatza ere emango zaie.

22. artikulua.– Aseguruak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bekadunari dagokionez, bi aseguru poliza izenpetuko ditu: istripuetarako aseguru poliza bat, heriotza eta ezintasun iraunkor absolutua edota ezintasun partziala aseguratzeko; eta beste poliza bat, erantzukizun zibilekoa, hirugarrenen aurrean bekadunaren jarduerak izan ditzakeen ondorioengatik.

23. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Interesdunek bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte prozedura honen izapide guztiak eskatu, kontsultatu eta burutzeko, deialdietan horrelakorik aurreikusten bada.

2.– Bitarteko elektronikoak erabiltzeko prozedura eta jarraibideak direla eta, aipatutako deialdietan ezarritakoari jarraituko zaio.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Dekretu honetan aurreikusita ez dagoen guztian Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 26an.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.